# DONOSTIALDEA ESIKO II EUSKARA PLANA. I ETA III ERANSKINAK

II Plan de Euskara de la OSI Donostialdea.
Anexos I y III

2015eko martxoaren 27a

332/2015 Ebazpena, martxoaren 25ekoa, Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) zuzendari gerentearena, Zerbitzu-erakundeko II. Euskara Plana onartzen duena.

Resolución 332/2015, de 25 de marzo, del Director Gerente de la Organización Sanitaria Integrada (OSI) Donostialdea, por la que se aprueba el II Plan de Euskera de la Organización de Servicios.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak finkatzen ditu Ente Publikoaren Euskara Plana arautuko duten oinarriak. Dekretu horretan zehaztutakoaren arabera, lehenengo plangintza-aldia amaitu eta helburuen betetze-mailaren ebaluazioa eginda, helburu berriak ezarri eta beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak egiteko bidea irekitzen da.

El Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud establece las bases que han de regular el Plan de Euskera del Ente Público. En aplicación de lo previsto en dicho Decreto, una vez finalizado el primer período de planificación y realizada la evaluación de cumplimiento de objetivos, se inicia el proceso para la formulación de nuevos objetivos y a las adecuaciones que se estimen necesarias.

Beraz, aipatu Dekretuaren 3. artikuluak ezarritakoa betez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2013-2019 aldiko Euskara Plana onartu zuen 2013ko abenduaren 3ko Erabakiaren bidez. Erabaki horrek bigarren atalean ezartzen duenez, Zerbitzu-erakundeetako zuzendaritzek eurei dagozkien Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak edo Proiektuak onartu beharko dituzte, Plan Orokor horren zehaztapen gisa.

En cumplimiento de lo previsto por el artículo 3 del citado Decreto, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud aprobó, mediante Acuerdo del 3 de diciembre de 2013, el Plan de Euskera del período 2013-2019. Dicho Acuerdo establece en su apartado segundo que las Direcciones de las Organizaciones de Servicios aprobarán sus respectivos Planes o Proyectos de Normalización del Uso del Euskera, como concreción del mencionado Plan de Euskera general.

Erabakiak, bestalde, gogorarazten du Osakidetza-Ente Publikoaren Euskara Planaren helburu nagusia dela, herritarren hizkuntza-eskubideak babesteko aurrerapausoak emateaz gainera, pazientearekiko komunikazioaren kalitatea eta enpatia hobetzea, giltzarri baitira zerbitzu asistentzialak ahalik eta onenak izan daitezen. Hori dela eta, Donostia Unibertsitate Ospitaleko Euskara Planak herritarrari eskaintzen zaizkion zerbitzuak hobetzen lagundu behar du.

El Acuerdo subraya la importancia de tener presente que el Plan de Euskera del Ente Público tiene por objetivo general, además del necesario avance en la protección de los derechos lingüísticos de los ciudadanos, mejorar la calidad de la comunicación y la empatía con el paciente, como elementos claves de la óptima prestación asistencial. Por ello, el Plan de Euskera de esta Organización de Servicios ha de contribuir a la mejora de los servicios prestados al ciudadano

Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen martxoaren 15eko 130/14 Ebazpenaren eta Gipuzkoa Eskualdeko zuzendari gerentearen apirilaren 11ko 198/2014 Ebazpenaren bidez, aipaturiko bi erakundeen II Euskara Planak onartu ziren. Plan hauek berregin behar izan dira bateragarritasun irizpideak kontuan hartuta, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren Akordioaren hamaikagarren atala jasotakoaren arabera (2015eko urtarrilaren 26ko EHAA, 16 zk); izan ere, aipaturiko dokumentuaren atal horretan dioenez, Donostia Unibertsitate Ospitaleak eta Gipuzkoa Eskualdeak zituzten era guztietako eskubide eta betebeharrak subrogatuta geratzen dira Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuari dagokionez.

Por Resolución 130/14, de 15 de marzo, del Director Gerente del Hospital Universitario Donostia y por Resolución 198/2014 del 11 de abril, de la Directora Gerente de la Comarca Gipuzkoa, se aprobaron los II Planes de Euskera de las respectivas organizaciones de servicios, planes que ha resultado necesario reelaborar con un carácter unitario y bajo un criterio común con arreglo a lo dispuesto en el apartado décimo primero del Acuerdo del Consejo de Administración de Osakidetza, de 30 de diciembre de 2014 (BOPV nº 16, de 26 de enero de 2015), por el que la Organización Sanitaria Integrada Donostialdea queda subrogada en todos los derechos y obligaciones de cualquier naturaleza de las organizaciones Hospital Universitario Donostia y Comarca Gipuzkoa, suprimidas en virtud del citado Acuerdo.

Aurrekoa betez eta, alde batetik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa den ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta, beste alde batetik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak emandako eskumenen arabera,

En su virtud, y de conformidad con las atribuciones competenciales recogidas en la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,

**EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Osakidetzako II Euskara Plana onartzea eta neure gain hartzea; era berean, Euskara Planean jasota dauden euskararen erabileraren normalkuntza irizpide eta neurriak Donostialdea ESIan aplikatu eta garatzeko konpromisoa hartzen dut, kontuan harturik zerbitzu erakundearen jarduera eremua, izaera asistentziala eta ingurune soziolinguistikoa.

**Bigarrena.-** Donostia Unibertsitate Ospitaleko Euskara Plana onartzea 2013-2019 aldirako, Ebazpen honen eranskinetan jasotakoaren arabera.

**RESUELVO**

**Primero.-** Aceptar y asumir el II Plan de Euskera de Osakidetza, así como el compromiso de aplicar y desarrollar todos los criterios y medidas de normalización del uso del euskera recogido en el "Plan de Euskera" en la OSI - Donostialdea dentro de su ámbito de actuación y conforme al carácter asistencial y al entorno sociolingüístico de la organización.

**Segundo.-** Aprobar el Plan de Euskera en la OSI - Donostialdea para el período 2013-2019, según lo contenido en los anexos de la presente Resolución.

**Hirugarrena.-** Donostialdea ESIko Zuzendaritzak dagozkion neurriak hartuko ditu Euskara Plana ezartzeko, garatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko. Zentzu honetan aipaturiko Planaren eranskinetan onartutako neurrien exekuzioaren koordinazioa eta jarraipena egingo du.

**Laugarrena.-** Donostialdea ESIko iragarki-tauletan eta web-orrialdan argitaratzeko agintzea.

**Azken xedapena**

2013-2019 aldiko Zerbitzu-erakundeko Euskara Plana onartzen duen Donostialdea ESIko zuzendari gerentearen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau zerbitzu-erakundeko iragarki-tauletan eta web-orrialdeetan argitaratu eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluek ezarritakoarekin bat etorriz.

Donostian, 2015eko martxoaren 25ean

**Tercero.-** La Dirección de la OSI - Donostialdea adoptará las medidas oportunas para el desarrollo, implantación, ejecución y evaluación del Plan de Euskera. En este sentido, coordinará y realizará el seguimiento del proceso de ejecución de las medidas aprobadas en los anexos de dicho Plan.

**Cuarto.-** Ordenar la publicación del Plan en los tablones de anuncios y en la página web de la OSI - Donostialdea.

**Disposición final**

Contra la presente Resolución del Director Gerente da la OSI - Donostialdea, por la que se aprueba el Plan de Euskera para el período 2013-2019, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en los tablones de anuncios y en las páginas web de la Organización de Servicios, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

San Sebastián, a 25 de marzo de 2015

**ZUZENDARI GERENTEA** / DIRECTOR GERENTE
**E.: Pertsonaleko zuzendari jauna** / P.D. El Director de Personal
**(40/2015 Ebazpena, urtarrilaren 14koa)** / (Resolución 40/2015 de 14 de enero)

DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL

**Izpta./Fdo.: JUAN RAMON DE LA PUENTE PAGOLA**

# DONOSTIALDEA ESIAREN II. EUSKARA PLANAREN I. ERANSKINA (2013-2019)

OSAKIDETZAREN II. EUSKARA PLANEKO NORMALIZAZIO NEURRIAK DONOSTIALDEA ESI ZERBITZU-ERAKUNDEAN: ERANTZUKIZUNAK, ZEHAZTAPENAK ETA JARRAIPENA

2015eko martxoaren 16a

DONOSTIALDEA ESIAREN II. EUSKARA PLANAREN I. ERANSKINA (2013-2019)

# DONOSTIALDEA ESIA ZERBITZU-ERAKUNDEAN OSAKIDETZAREN II. EUSKARA PLANEKO NORMALIZAZIO NEURRIAK: ERANTZUKIZUNAK, ZEHAZTAPENAK ETA JARRAIPENA

Eranskin honetan jasotzen dira 2013ko abenduaren 3an Osakidetzako Administrazio Kontseiluak onartutako Euskara Plan Orokorrean jasotzen diren neurrien zehaztapen eta egokitzapenak, Donostialdea ESIaren ezaugarriei egokituta.

(1) Kargua / arduraduna / unitatea (neurria ezarri, garatu eta jarraipena egiteko)
(2) Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak (neurriaren azalpen laburra, jardueren errenkada, komunikazioa, inplikatutako agenteak, aplikatzeko modua,…)
(3) Lortu beharreko helburuei eta lortzeko jarritako datei buruzko zehaztapenak
(4) Neurrien jarraipena egiteari buruzko zehaztapenak: modua, maiztasuna, neurri zuzentzaileen ezarpena,...

**1. KAPITULUA: IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA**

| Atala | | | Arduradunak (1) | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak (2) | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 1.1Errotulazioa | 1.1.1 | Kanpoko eta barruko errotulazio finkoa | Pertsonaleko Zuzendaritza, Komunikazio U. | Komunik. U., Perts Zuzend.<br><br>Lehen Mailako Atentzioa: hornidurak | Zuzenduko dira oraindik ere oker daudenak, bai euskarazko testua bai gaztelerazkoa zuzena ez delako, eta baita hizkuntzaren erabileraren irizpideak betetzen ez dituztelako kokapenagatik, hizkuntzen erabileragatik edo tipografiagatik.<br>Komunikazio unitateak protokolo bat abiatuko du, aurrerantzean euskaraz eta gazteleraz zuzena ez den errotulu finkorik jar ez dadin ez barruan ez kanpoan.<br>Halaber, elementu mugikorrentzako irizpideak ezarriko dituzte, besteak beste, arropatako inskripzioetarako, ibilgailuen errotulaziorako, etab.<br>Lehen Mailako Atentzioan unitateetako arduradunen esku egongo da jarraipena. | 2015etik aurrera | Urtean behin paisaia linguistikoaren errepaso egingo da, Komunikazio Unitatearen eta Unitateetako arduradunen eskutik (Lehen mailako Atentzioko zentroetan) |
| | 1.1.2 | Kanpoko eta barruko errotulazio aldakorra | Pertsonaleko Zuzendaritza, Komunikazio U. | Komunik. Unit., Pertson. Zuzen. | Langileei adieraziko zaie zein irizpide jarraitu behar duten behin behineko errotuluak, jakinarazpenak, oharrak… egiteko eta jartzeko, era berean, ereduak emango zaizkie eta irizpideak azalduko zaizkie interesatu eta arduradunei. | 2015etik aurrera | Urtean behin paisaia linguistikoaren errepaso egingo da. |
| | 1.1.3 | Kontratatutako enpresen errotulu eta panelak | Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritza | Kontratazio Administratiboa | Kontratatutako enpresek ospitaleko seinaletikaren irizpideak beteko dituzte, Euskara Planaren 2.7 puntuan *Kontratatutako zerbitzu eta erositako produktuen gaineko hizkuntza-irizpideak* jasotzen denaren arabera (Kanpo-Harremanak kapituluan). | 2015etik aurrera | Urtean behin paisaia linguistikoaren errepaso egingo da. |
| 1.2. Kartelak | | | Pertsonaleko Zuzendaritza, Komunikazio U. | | Langileei azalduko zaie behin behineko kartelak, jakinarazpenak eta oharrak… jartzeko zein irizpide jarraitu behar duten, halaber, ereduak emango zaizkie eta interesdunei eta kartelen arduradunei | 2015etik aurrera | Urtean behin paisaia linguistikoaren errepaso egingo da. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | irizpideak azalduko zaizkie. | | |
| Atala | Arduradunak (1) | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak (2) | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
| | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 1.3. Papeleria | | | ___ | | Egina |
| 1.4. Internet, Intranet eta sare sozialak | Pertsonaleko Zuzendaritza, Komunikazio U., Informatikako Zuzendariordetza | Euskara Zerb., Komunikazio Unit, Informatika | Tresna komunikatibo hauek erabiltzeko irizpideak dokumentu batean zehaztu eta jasoko dira. Horretarako kontuan hartuko dira tresna hauen lehentasun eta erabilerak eta Euskara planaren irizpideak | 2015tik aurrera | Sare sozialak, internet eta intranet erabiltzeko protokoloa |
| 1.5. Aldizkariak eta buletinak | Komunikazio Unit | Komunikazio Unit | Euskararen presentzia bermatuko da DUOko aldizkari eta buletinetan, dagokion portzentajean.<br>Bestalde, euskalduntzearen edo euskararen zabalkunde eta normalizazioaren esparruan, zilegi izango da euskarazko buletin eta aldizkariak argitaratzea. | 2015tik aurrera | Urtero jarraipena egingo du Komunikazio unitateak eta urte amaierako txostena egingo du. |
| 1.6. Iragarkiak, publizitatea eta kanpaina instituzionalak | Komunikazio Unit | Komunikazio Unit | Iragarkietan eta publizitate eta komunikazio kanpainetan euskara eta gaztelera erabiliko da.<br>Bi hizkuntzak publizitate-euskarri berean agertu ahalko dira edo bakoitzak bere euskarria eduki. Azken kasu horretan, eta mezuaren zabalkundeari begira, ahalegin handia egingo da euskara zerbitzu edo informazio hizkuntza duten komunikabideek euskarazko publizitate-euskarria jaso dezaten. | 2015tik aurrera | Urtero jarraipena egingo du Komunikazio unitateak eta urte amaierako txostena egingo du. |
| 1.7. Ekitaldi publikoak, jardunaldiak,… | Zuzendaritza guztiak | Komunikazio Unit | Ospitaleko Zuzendaritzak onartutako Ekitaldi Publikoetan Euskararen Erabilera jarraibideak beteko dira (jarraibide hauek LMA hedatuko dira).<br>Erabilera bermatzen eta handiagotzen joango da urtez urte. Eta ekitaldiko hartzaile gehientsuenak Euskara Planaren 1 lehentasun espezifikoa duten zerbitzu edo unitateetako langileak direnean, hala nola harrerak eta onarpenak, haur eta gazteak artatzeko unitateak, larrialdiak, medikuntza | 2015tik aurrera | Informazioa jasoko da eta eta urte amaieran txoten bat egingo da (estadistika). |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | orokorra, erizaintza orokorra, etab. | | |



**I. ERANSKINA**
ANEXO I

| Atala | Arduradunak (1) | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak (2) | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 1.8. Agurrak eta lehenengo esaldiak paziente eta erabiltzaileei harrera egiterakoan | Zuz. Medikoa, Erizaintzako Zuz, Pertsonaleko Zuz. | Uniateen arduradunak, Euskara Zerb. | Euskararen erabilerarako irizpideak jakinaraziko zaizkie, zuzeneko atentzioa, informazioa eta onarpeneko langileei. | 2015tik aurrera | Jarraipena tarteko arduradunak egingo du jarraibideak lanerako jarraibide orokorren baitan sartuta. |
| 1.9. Megafonia eta erantzungailuak | Zuz. Medikoa, Erizaintzako Zuz, Pertsonaleko Zuz. | Euskara Zerb. | Komunikaziorako elementu hauetan hizkuntzaren erabilera irizpideak jakinaraziko dira. | | Jarraipena unitate hauen ardurapean geratuko da. |

**2. KAPITULUA: KANPO HARREMANAK**

| Atala | | Arduradunak (1) | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 2.1. Paziente eta erabiltzaileekiko harremanak | 2.1.1. Ahozko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak | Zuzendaritza guztiak | Unitateetako arduradunak | Euskara erabiltzeko irizpideak modu naturalean txertatzen joan paziente eta erabiltzaileekiko harremanetan. | 2014tik aurrera | Unitate hauen arduradunen jarraipena lanerako irizpideen artean txertatua. |
| | 2.1.2. Idatzizko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak | Zuzendaritza guztiak | Unitateetako arduradunak | Paziente, senide edo beste edozein erabiltzaileri zuzendu beharreko dokumentazio guztia, izaera informatibo, asistentzial edo administratibokoa, bi hizkuntza ofizialetan entregatuko da. | 2015etik aurrera | Zuzendaritza bakoitzak ezarriko du nola eta noiz egingo duen jarraipena. |
| | 2.1.3. Komunikazio telematikoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak | Zuzendaritza guztiak, Informatikako Zuzendariordetza | Informatikako unitatearen arduraduna | Internet edo bestelako komunikazio-teknologien bidezko izapideetan, Osakidetzako paziente eta erabiltzaileek unean-unean aukeratu ahal izango dute zein hizkuntza ofizial erabili, euskara ala gaztelania. | 2015etik aurrera | Zuzendaritza bakoitzak ezarriko du nola eta noiz egingo duen jarraipena. |
| | 2.1.4. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen berri ematea, aplikazioa eta jarraipena | Zuzendaritza guztiak | Unitateetako arduradunak | Euskararen erabileraren irizpideak tarteko arduradunen prestakuntzaren bidez egingo dira, eta hauek arduratuko dira profesionalen eskura jartzeaz beharrezko diren baliabideak irizpideak betetzeko. | 2014tik aurrera | Jarraipena dagokion Zuzendaritzak egingo du |
| 2.2. Zerbitzu elebidunen eskaintza | | Zuzendaritza Medikoa, Pertsonaleko Zuzendaritza | Onarpena, Eusk Zerb. Unitate Buruak, BAEAT | Profesional eta zerbitzu elebidunen Identifikazio kanpainari jarraipena emango zaio.<br>Espezialitate medikuetan zirkuitu elebiduna eskainiko da.<br>Lehen M. A-n pediatra eta familia mediku elebiduna aukeratzeko erraztasunak emango dira. Unitate buruek kupoen OTIen banaketa | 2015tik aurrera | Zerbitzu elebiduna emateko egiten diren ekintzak bilduko dira.<br>Eskainitako zirkuituen jarraipena egin |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | aztertuko dute, eta ahal den heinean profesional elebidunen kupoak irekita egon daitezen neurriak hartuko dira. | | |



## I. ERANSKINA
ANEXO I

| Atala | Arduradunak (1) | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 2.3. Pazienteen lehentasunezko hizkuntza ahozko komunikazioan | Zuzendaritza Medikoa | Onarpen Zerbitzua, Unitate Buruak BAEAT | Horrela nahi duten pazienteen lehentasunezko hizkuntza jaso. Paziente batek lehentasunezko hizkuntza euskara duela adierazten duenean, erakundeak zerbitzu elebidunen duen gaitasunaren arabera zerbitzua euskaraz emango dio | | Eginkizun hauetan parte hartzen duten unitateetako arduradunen jarraipena. |
| 2.4. Paziente eta erabiltzaile euskaldunen gogobetetzea | Z. Medikoa | Kalitate Zerb. | Gogobetetze-maila neurtzeko inkestetan, euskara ohiko hizkuntza duten pazienteek (edo euskara eta gaztelania era berean) aukera izango dute erakundeko euskararen erabilerari buruzko zenbait itemi erantzuteko | Inkestak egiten direnean. 2016tik aurrera. | Gogobetetze-maila adierazlea izango da eta bi urtetik behin egingo da. |
| 2.5. Hizkuntza eskubideen aitormena paziente eta erabiltzaileen eskubideen dekalogoetan | Zuzendaritza guztiak | Komunik. U. | Euskara Plana onartzen den momentutik Aurrera, hizkuntza-eskubideen berariazko aipamena egingo da Osakidetzan argitaratuko diren paziente eta erabiltzaileen eskubideen dekalogo guztietan. | 2015etik aurrera. | Pazienteen eskubideak jasotzen dituzten dekalogoei buruzko txostena / memoria. |
| 2.6. Enpresa hornitzaile, finantza-erakunde, administrazio, organo kolegiatuekiko,… harremanak | Zuzendaritza guztiak | Harremanen arduradunak | Ahal den neurrian erakundearen eta dagokion administrazio sailak (tokikoak, foralak edo autonomikoak, baina batez ere udalek eta osasun Sailak) euskarazko zirkuitu administratiboa osatuko dute | 2016tik aurrera | Eginkizun hauek dituzten unitateetako arduradunen jarraipena |

| Atala | Arduradunak (1) | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 2.7. Kontratatutako zerbitzu eta erositako produktuei buruzko hizkuntza-irizpideak | Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritza | Kontratazio eta Hornidura Zerbitzua (LMA) | Kontratua egikaritzeko hizkuntza baldintzak jasoko dituzte (segurtasun zerbitzua, kafetegia, jantokia…) zerbitzuak emateko kontratatzen diren enpresen kontratuak. Era berean, hornigaien erosketetan baldin eta erosi beharreko aparatuek langileek edo erabiltzaileek irakurriko dituzten idazkun edo jarraibideak idatzirik badauzkate. Kontratuetan jasotako hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak hartuko dira. | 2015etik aurrera | Betetze mailaren jarraipena |

**3. KAPITULUA: BARNE-HARREMANAK**

| Atala | | Arduradunak | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 3.1. Lan-esparruko hizkuntza-paisaia | | Zuzendaritza guztiak | Lan Osasuna, Bulego Teknikoa (azpiegiturak), Komunikazioa, Kudeaketa Zerbitzua, Eusk. Zerb | Neurriak hartuko dira progresiboki segurtasunari, lan-osasunari eta ingurumenari dagokion kartelerian, inskripzioetan eta tresnen jarraibideen oharretan euskarak leku handiagoa izan dezan. | 2015etik aurrera | Urteroko jarraipena, zehazteke |
| 3.2.- Giza baliabideak | 3.2.1. Langileekiko harremanak | Zuzendaritza guztiak | Unitateetako Arduradunak | Neurriak hartuko dira pertsonalarekin kontaktua eta harremana duten unitateetan komunikazioa elebiduna izan dadin. | 2014tik aurrera | Osakidetzako profesionalen gogobetetze-maila neurtzeko inkestetan, hizkuntza ofizialei buruzko hiru item jasoko dira: hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideen transmisioa eta aplikazioa; barneko komunikazio hizkuntza; eta erakunde bakoitzak euskaraz lan egiteko ematen dituen aukerak. |
| | 3.2.2. Langileen lehentasunezko hizkuntza | Pertsonaleko Zuzendaritza | PAU, Pertsonaleko Zuzendaritza. (LMA) Unitate Buruak. | Langilearen aukera linguistikoa jasoko da | 2014tik aurrera | Aukera linguistikoa jasoko da eta jarraipen estatistikoa egingo da |
| | 3.2.3 Langile eta egoiliar berrien harrera | Zuzendaritza Medikoa, Erizaintzako Zuzendaritza, Pertsonaleko Zuzendaritza | | Harrerarako eskuliburua eguneratuko da euskararen erabilera irizpideak jaso ditzan. | 2015etik aurrera | Pertsonaleko Zuzendaritzak harrera eskuliburuak jasoko ditu. |

| Atala | | Arduradunak | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| 3.3. Prestakuntza | 3.3.1. Etengabeko prestakuntza korporatiboa | | | ---------------- | | |
| | 3.3.2. Zerbitzu-erakundeek antolatutako prestakuntza espezifikoa | Zuzendaritza guztiak Ezagutza Arloarekin koordinaturik | Ezagutza Arloa | Zerbitzu-erakundeak antolatutako prestakuntza espezifikoan (tailerrak, ikastaroak, saio klinikoak...), euskarazko prestakuntza-saioen kopuruak zerbitzu erakundeko langile elebidunen portzentajearen parera heldu beharko du arian-arian (%36 2016rako) | %36 2016rako (Planaren tarteko ebaluazioa) | Ezagutza arloko urteroko memoria. |
| | 3.3.3. Mediku eta erizain egoiliarren prestakuntza | Zuzendaritza Medikoa, Erizaintzako Zuzendaritza | Irakaskuntza (Docencia) atala | Aurrerantzean, Osakidetzan prestakuntza espezializatua jaso behar duten mediku eta erizain egoiliarrei tutorea esleitzerakoan, organo eskudunek egoiliarren lehentasunezko hizkuntza izango dute gogoan (unibertsitate ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin dituzten mediku eta erizainen kasuan bereziki). Eta horren arabera, neurriak hartuko dira egoiliarrei prestakuntza (edo prestakuntzaren zati bat behintzat) euskaraz izan dakien. Jarduera hauen arduradunekin plan progresibo bat diseinatuko da eta harrera protokoloan erakundearen euskara planari buruzko informazioa atxikiko da. | Hasiera 2015ean | Urtero jasoko da euskaraz eginiko jardueren kopurua eta hauen eboluzioa. |
| | 3.3.4. Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak | | | ----------------------------------------- | | |
| | 3.3.5. Hizkuntza hobetzeko beste ikastaro batzuk | Pertsonaleko Zuzendaritza, Ezagutza Arloa, | | Hizkuntza hobetzeko hainbat ikastaro edo saio antolatuko dira, zerbitzu elebidunen eskaintza hobetzeko interesgarritzat joz gero (III Eranskina) | 2015etik aurrera | Prestakuntza jardueren jarraipena |

| Atala | | Arduradunak: Zuzendaritza eskuduna | Arduradunak: Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.4. Euskaraz lan egiteko trebakuntza | | Pertsonaleko Zuzendaritza, Ezagutza Arloa | Ezagutza Arloa | Bi urteko trebakuntza-programa bat osatu, zuzkitu, garatu eta ebaluatuko du ospitaleak, langileen beharrizan eta posibilitateak kontuan izanda. Programa hori, eta bere ebaluazioa, Osakidetzaren Euskara Zerbitzu Korporatiboari aurkeztu beharko zaio jarraipena egiteko. (III Eranskina) | 2015etik aurrera | Irakaskuntza jardueren jarraipena egingo da (gogobetetze maila eta kopurua) |
| 3.5. Baliabide informatikoak | | Pertsonaleko Zuzendaritza, Informatikako Zuzendariordetza | Informatika | Langile elebidunei programa ofimatika programak euskaraz instalatzeko eta erabiltzeko aukera jakinaraziko zaie. Horrekin batera, erakundeak langileak motibatuko ditu euskarazko ofimatika-programak baliatzeko, baita horretarako behar duten prestakuntza eman ere.<br>Euskaraz lan egiten laguntzen duten bestelako tresna informatikoak ere eskuratuko zaizkie enplegatu elebidunei (zuzentzaile ortografikoak, hiztegi elektronikoak, sareko gramatikak, etab.). | 2015etik aurrera | Instalatutako ekipoen jarraipena |
| 3.6. Komunikazio horizontala eta bertikala | 3.6.1. Lan hizkuntza | Pertsonaleko Zuzendaritza, Ezagutza atala | Eusk. Zerb. | Zerbitzu edo unitate bakoitzeko euskararen erabilera-programan zerbitzu edo unitate horretako lan-hizkuntza adieraziko da espresuki. Horrela, bai programa horiek diseinatzean, bai ondorengo berrikuspenetan, aztertu egin beharko da euskara unitateko lan-hizkuntza izateko aukera. | 2015etik aurrera | Unitateen programetan jasoko da (pretskuntza) |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| Atala | | Arduradunak | | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
| | | Zuzendaritza eskuduna | Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | | | |
| | 3.6.2. Hizkuntza ofizialen erabilera bileretan | Zuzendaritza guztiak | | Euskara ohiko lan eta komunikazio hizkuntza duten zerbitzu, unitate, lantalde edo batzordeek lan-bilerak euskaraz egitea sustatuko da.<br>Bilera orokorretan hasierako sarrera eta azken laburpena gutxienez euskaraz egingo dira. Deiak, erabilitako idatzizko eta ikus-entzunezko materialak, aktak eta dokumentu nagusiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira. | 2015etik aurrera | |
| | 3.6.3. Langileen arteko komunikazioan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak | Pertsonaleko Zuzendaritza | Euskara Batzordea | Ospitaleak egoki deritzon egitasmo edo jarduerak antolatuko ditu, hizkuntza-ohiturak aldatzeari eta langileen arteko harreman informaletan euskararen erabilera sustatzeari begira (Mintzalagun, Kafea euskaraz...). | 2014tik aurrera | Ekimen kopuruaren jarraipena |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **3.**7. Estrategia eta kudeaketa | | Zuzendaritza guztiak | Komunikazio Unit. | Estrategia eta kudeaketa orokorrari loturiko dokumentu nagusiak (Plan Estrategikoa, kudeaketa-planak, kontabilitate arloko dokumentuak, etab.) bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira. | 2014tik aurrera | Dokumentazioaren urteroko errepasoa |

**4. KAPITULUA: HIZKUNTZA-KUDEAKETA**

| Atala | | Arduradunak: Zuzendaritza eskuduna | Arduradunak: Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea | Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak | Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak | Jarraipena |
|---|---|---|---|---|---|---|
